

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 15ekoa. Onestea mahats mordoaren sitsaren aurkako estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren aldaketa

Aspaldi erakutsi zen sexu nahasketako tekniken bidez mahats mordoaren sitsari aurka egiteko metodoa eraginkorra dela, bai eta kausa-ondorio harremana dagoela ere mahastietan mahats mordoaren sitsa garatzearen eta mahatsaren heltze aldia *botrytisa* agertzearen artean. Horrek eragin negatibo zuzena dauka fruituaren kalitatean eta, beraz, ardoen kalitatean.

Sitsa kontrolatzeko sistema hori aspaldi ezarri zen mahastizaintza eta ardogintzako beste zona batzuetan, bai eta Errioxa JDren barruko zona jakin batzuetan ere, eta emaitza bikainak eman ditu. Hala ere, gure eremuan oraindik ez dago behar bezainbeste ezarrita eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak interes handia dauka Arabako ardogintza eskualdeetan teknika horren erabilera sustatzeko. Horregatik, otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren foru agindu honen eranskinean jasotako sexu nahasketako teknikak erabiliz Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia garatzeko partaide talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriak. Horren ondorioz, beren ustiategiaren teknika horretaz baliatzeaz interesa duten pertsona eta erakundeen zerrenda egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren bidez, onespina eman zitzaien mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileei eta 2021erako deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 17ko 21/2022 Foru Dekretuaren bidez, onespina eman zitzaien mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak aldatzeari eta 2022ko dirulaguntza deialdia egiteari.

Teknika horren baldintza teknikoak eta ekonomikoak direla-eta, teknika hori garatzeko enpresa eta erakundeen parte hartze aktiboa behar da, sustatzaile eta aholkulari jardun dezaten, bai eta osagai kimikoen eta haiek aplikatzeko behar diren ekipoen hornitzaileena, eta teknikaren azken erabiltzaile izan nahi duten upeltegiena eta ustiategiarena ere.

Argi eta garbi geratu da mahastizainek teknika hori ezartzeko interesa dutela, eta horrek ekimen hori babesten jarraitzea komeni dela egiaztatzen du; izan ere, laguntzen deialdiaren bigarren urtean eskaera gehiago izan dira.

Kudeaketako bi urte hauetan lortutako esperientziaren ostean, pentsatuta dagoen foru dekretuaren xedea eta helburua da laguntzaren oinarri arautzaileak aldatzea, laguntzaren garapena bultzatzen jarraitzeko eta eragile desberdinen artean sinergiak sortzeko, lurraldean zehar heda dadin haren berezitasun espezifikoak kontuan hartuta. Bezitasun horiek hauexek dira, funtsean: mahastizaintzako lursailen partzelazio handia eta tamaina txikia, eta ustiategiaren atomizazio handia, egungo erabileraren hedapen mugatuarekin konbinatuta. Beraz, beharrezkoa da laguntza hori erakargarriagoa egitea eta Arabako ardogintza eskualdeetan teknika ezartzeko hasierako fase horietan duen eginkizun bultzatzailea hobetzea.

Gaur egun, eguneraketak sartu behar dira proiektuak definitzeko orduan, artean kontuan hartu ez diren hainbat aukera sartzeko.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuan laguntza horietarako kreditua dagoela, egokia da onespena ematea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko 2023rako laguntzarako deialdiari.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsaren (*Lobesia botrana*) aurkako estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak aldatzea. Oinarri horiek Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 17ko 21/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatu. Hona hemen oinarrien aldaketak:

1. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren (Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 17ko 21/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatua) 3. artikulua, sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsaren aurkako estrategia garatzeko proiektuak sustatzeko betekizun eta konpromiso espezifikoetarako buruzkoa, 3.2 apartatua, eta 3.4, 3.5 eta 3.6 apartatuak sartzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

3.2 Eskaerak banakakoak izango dira. Eskaera horiek eta 5.3. artikuluan zehaztutako beharrezko dokumentazioa banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira, proiektu kudeatzaile baten bidez. Proiektu kudeatzaile hori pertsona fisiko edo juridiko bat edo nortasun juridikorik gabeko erakunde bat izango da. Aurkezleak ez dauka zertan izan nahitaez parte hartzen duten nekazaritza ustiategiak bat; baina, haiek ordezkatuz, solakide izango da Nekazaritza Sailarekin.

3.3 Eskaera aurkeztearekin batera, baimena ematen da kudeatzailea eta parte hartzen duten nekazaritza ustiategiak otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduan sortutako zerrendan sartzeko. Foru Agindu horren bidez, Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurre egiteko estrategia bat garatzeko parte hartzaileen talde bat ezartzeko interesa adierazteko deialdi publiko baten oinarriak onesten dira.

3.4 Eskaerak barematzeko, Arabako Lurralde Historikotik kanpo dauden lurzatiak sartu ahal izango dira proiektuan; baina, Araban dauden eta ustiategi eskatzailean inskribatuta dauden finketan egindako jarduketak baino ezin izango dira diruz lagundu.

3.5 Elkarren ondoko proiektuak sartu eta finantzatu ahal izango dira, 4.5 artikuluan ezarritako baldintzetan, baldin eta laguntzaren helburuak bermatzen badira.

3.6 Laguntza eskatzaileak edo parte hartzaileak izan ahalko dira proiektu batean onar daitezkeen mahastizaintza ustiategiak. Laguntza eskatu ez arren proiektu baten barruan aurkezten diren eta baremazioetan kontuan har daitezkeen ustiategiak izango dira parte hartzaile.

2. Aldatzea Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 17ko 21/2022 Foru Dekretuak aldatutako 45/2021 Foru Dekretuaren 4. artikuluen 2., 3., 4. eta 5. apartatuak (Laguntzen kalkulua eta zenbatekoa), eta honela idatzita uztea:

4.2. Kalkulua: laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, elkarlaneko proiektua balioetsiko da ondoko parametro tekniko hauen arabera, eta kontuan edukiz mahats mordoaren sitsaren aurkako sexu nahasketako teknikaren ezaugarriak eta eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa:

- Proiektuan onar daitezkeen mahastizaintza-ustiategiaren kopurua:

2 – 4	10 puntu
5 – 10	15 puntu
11 – 20	20 puntu
20 baino gehiago:	30 puntu

- Proiektuaren barruan dauden hektareen kopurua:

1 – 4	5 puntu
4 baino gehiago – 10	10 puntu
10 baino gehiago – 50	20 puntu
50 baino gehiago	30 puntu

- Proiektuan jasotako aldearen trinkotasuna:

Trinkotasuna koefiziente bat da, teknika honen erabilera eraginkorra izateko faktore garrantzitsuenetako bat neurtzen duena: alegia, lurzatiak elkarren mugakide izatea, bere artean ahalik eta hutsarte txikienak utzita, eta teknika hau erabiltzen ez duten lurzatiekiko mugak ahalik eta luzera txikiena izatea. Trinkotasun hori bi hauen arteko zatidura da: eragindako eta tratamenduan jarritako lurzatiaren azalera eta lurzati guztiak osatzen duten entitatea mugatzeko gutxiengo geometriak osatzen duen poligono konbexuaren azalera.

0,2 edo gutxiago	10 puntu
0,2 baino gehiago eta 0,6 arte	20 puntu
0,6 baino gehiago eta 1 arte	30 puntu

4.3. Zenbatekoa: proiektuan diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa ondoko taulan adierazitako ehunekoak izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena, aurretik azaldutako irizpideekin lortutako puntuen arabera.

20 puntura arte	ehuneko 30
40 puntura arte	ehuneko 40
60 puntura arte	ehuneko 50
80 puntura arte	ehuneko 60

4.4. Eskaera guztiak barematuko dira, eta lortutako puntuen taularen arabera dagokien ehunekoak emango zaie.

Onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 2.500,00 eurokoa da.

Proposamen positiboa duten eskaeren guztizko zenbatekoa batuta, aurreko paragrafoan adierazitako muga aplikatu ondoren, laguntza lerro honen deialdia ebazteko erreserbatutako zenbatekoa gainditzen bada, guztizkoaren gaineko defizit ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Proiektu bakoitzak, gutxienez, hektarea bateko azalera tratatua izan beharko du, bai eta mahastizaintzako bi ustiategi onargarri ere. Muga hori aplikatzeko, eskatzaileek konprometitutako lurzatiaren azalera osoa zenbatuko da, bai eta, behar izanez gero, proiektuan parte hartzen dutenak eta haien ondoan egon daitezkeenak ere. Trataturako azalera bererako, lurzatiaren ertzetan feromonadosi handiagoa lagundu ahal izango da diruz; dosi hori, gehienez, ehuneko 10 handiagoa izango da. Mahasti azalera babestu osoa eta benetan egindako gastua hartuko dira kontuan, dosiak eta puffer-aren eta difusoreen presentzia egiaztatzeko.

4.5. Ondoko proiektuak:

a) Proiektu bat, 4.2 artikuluan ezarritako gutxiengo baldintzak banaka betetzen dituen ala ez alde batera utzita, deialdi berean eskatutako beste proiektu baten ondoan dagoela ulertu ahal izango da, baldin eta, batera hartuta, kalkulaturako guztizko baremazioa jatorrizko proiektuaren berdina edo handiagoa balitz bezala hartzen bada, eta elkarren ondoan jarrita, bere trinkotasun koefizientearen balioa hasierako balioaren ehuneko 20tik beherako balio batera murrizten ez bada. Kasu horretan, batera hartzearen ondoriozko baremoa elkarren ondoan

jarritako proiektuen eskaera guztiei aplikatuko zaie, eta eragina izango du baterako proiektuaren baremazioan ere. Elkarren ondoko gisa aurkezten badira eta ez badituzte betetzen paragrafo honetan halakotzat hartzeko zehazten diren baldintzak, banakako proiektu gisa zenbatu ahal izango dira.

b) Era berean, ondoko proiektutzat hartuko da, laguntza deialdian eskatu arren, laguntza eskatu ez duten eta abian dauden beste ekimen batzuekin (parte hartzaileak) batera aurkezten den proiektua, baldin eta egiaztatzen bada sexu nahasketaren teknika behar bezala ezarri dela. Elkarren ondoko posizio horrek ezin izango du trinkotasun koefizientearen balioa hasierako balioaren ehuneko 20tik beherako balio batera murriztu.

3. Aldatu egiten da 5. artikulua, "eskaeren edukia eta informazioa" izenekoa, eta beste idazketa bat ematen zaio 5.2 apartatuari; 5.3 apartatua aldatzen da, eta 5.3 eta 5.4 apartatuak berriro zenbakitzen dira. Hona horiek izango duten idazketa:

5.2. Eskaera kopurua: eskatzaile batek, partzela desberdinekin, proiektu batean baino gehiagotan parte har dezake, horien kokapenaren arabera. Hala egitekotan, eskaera bana egin beharko du proiektuko.

5.3. Banakako eskaeren edukia eta aurkeztu beharreko agiriak:

5.3.1. Eskaera behar bezala beteta eta sinatuta.

5.3.2. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentazioa:

Administrazioak egiaztapena egiteko baimenik ematen ez badu: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak badira, sozietatearen eta haren kideen ziurtagiriak.

Eskatzailea ez den beste pertsona batzuek aurrez aurre aurkezteko: eskatzailearen izenean laguntza aurkezteko baimena, eskatzailearen NAN/IFZren kopiarekin.

Ondoko proiektua den ala ez zehaztuko da, eta haren izena, hala badagokio.

Eskatzaile bakoitzak eta, hala badagokio, parte hartzaile bakoitzak proiektuan sartutako lurzati zerrenda. Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuta: kalkulu orriaren fitxategi informatiko baten bidez. Fitxategi horrek eskatutako lurzati zerrenda jasoko du, SIGPAC erreferentziaren arabera identifikatuta, eta udalerrria-poligono-lurzatia-esparrua izena jasoko ditu, zutabeetan. Lurzati bakoitzerako, gainera, laguntzaren xede den konprometitutako azalera eta erabilitako metodoa (pufferra, difusoreak, ihintzatzea) zehaztu beharko dira.

Jardueren memoria eta erabilitako produktuaren informazioa:

– Proiektuan parte hartu dutenen eta eskatzaileen zerrenda.

– Lurzati banaketa espazialaren eta eragin eremuaren arabera erabilitako metodoaren justifikazioa. Hektareko erabilitako dosiak eta, hala badagokio, aplikazio kopurua.

– Produktu fitosanitarioaren ezaugarriak: erregistro orria, osaera, prestakin mota, funtzio mota, erabilera esparrua, difusore/formulatuko feromona dosia, iraunkortasuna adierazita. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Produktu eta Material Fitosanitarioen Erregistro Ofizialean horretarako baimenduta eta inskribatuta egon beharko duen produktua.

Gastuen fakturak eta frogagiriak, 10.2 puntuan zehaztutakoaren arabera. Fakturak proiektuarekin zerikusirik ez duten beste lurzati batzuetan egindako gastua barne hartzen badu, memorian zehaztu beharko da.

Ihintzate tratamenduen kasuan, aplikazioen oharrak jasotzen dituen landa koaderno (data, tratatutako azalera eta dosia).

Onuradunak hirugarren batzuei tratamendua aplikatzen badie, hirugarrenei aplikatzeko koaderno.

5.4. 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, Arabako Foru Aldundiak edozein administrazio egindako dokumentuak kontsultatu edo eskatuko ditu, eskaeran dagokion aukera markatuta, baldin eta eta eskatzailea aurka ez badago. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

5.5. Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen ditu.

4. Aldatu egiten da 45/2021 Foru Dekretuaren (Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 17ko 21/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatua) 9. artikuluko (Ebazpena eta jakinarazpena) 3. apartatua, eta laguntzen murrizteari buruzko ñabardurak gehitzen dira. Hona aurrerantzean izango duen idazketa:

9.3. Laguntzak emateko eta ordaintzeko ebazpenak emango dira, eta haietan laguntzaren zenbatekoa ezarriko da eskaera bakoitzerako. Ebazpenean murrizketaren bat egonez gero (azkenean baliozkotutako azalera hitzartutakoa baino txikiagoa da), laguntza kalkulatzeko, azalaren murrizketa 11. artikuluan azaldutakoaren arabera kalkulatu da. Ebazpena ezezkoa izanez gero, haren arrazoia zehaztuko da. Bi kasuetan, 2. artikuluan jasotako baldintza orokorrak ez betetzeagatik bada, eta laguntzaren gainerako baldintzak betetzen badira, ebazpen horrek ez du eraginik izango proiektuaren baremazio osoaren emaitzan. Aitzitik, arrazoia 3., 5. edo 8. artikuluetan jasotako konpromiso eta alderdi teknikoak ez betetzea bada, edo ezin bada gastua edo teknikaren aplikazioa egiaztatu, proiektu horren onuradunei egiten zaizkien gainerako ordainketak baremazio berriaren eraginpean geratuko dira (baremazio hori azalera baldintzak eta, hala badagokio, parte hartzaileen kopurua aldatu ondoren lortzen da), eta bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango da.

5. Maiatzaren 17ko Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatutako 45/2021 Foru Dekretuaren 10. artikulua aldatzea («Laguntzen ordainketa»), edozein deialditara hedatzeko, eta 2. apartatua eguneratzea, 5.3 artikuluan adierazitako dokumentazioari erreferentzia eginez. Hona aurrerantzean izango duen idazketa:

10.1 Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira. Proiekturako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 4.4 artikuluan adierazitako ehuneko izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena. Kopuruak banan-banan ordainduko zaizkie aurkeztutako elkarlaneko proiektuko eskatzaileei. Fakturak deialdiaren urtean sortutako gastuenak izango dira.

10.2. Laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa da hauek aurkeztea:

– Eskaera, behar bezala beteta.

– Erantsitako dokumentazioa, 5.3 artikuluan deskribatutakoaren arabera. Egindako gastuen froga agiriak: jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, onuradunak ordaindu dituen egiaztapenarekin. Fakturak eskaeraren urtean sortutako gastuenak izango dira, gehienez ere, eskaerak aurkezteko epea amaitu artekoak. Ordainketa egiaztatzeko, dagokion banku transferentziaren agiria aurkeztuko da, edo merkataritza trafikoan froga balio bera duen beste agiri bat. Nolanahi ere, 1.000,00 euroko gastuak edo hortik gorakoak banku transferentziaren edo beste titulu baliokideren baten bidez frogatu behar dira, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzen eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzen uztailaren 9ko 11/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Banku elektronikoen baten agiriak izatekotan, agiri horiek banku entitateak zigilatuta etorri beharko dute.

Bigarrena. Onestea dirulaguntza horien 2023ko deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: 2023ko uztailaren 26tik abuztuaren 18ra bitarteko epea, biak barne.

Eskaerak hemen aurkeztu beharko dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek behartuta daude telematikoki aurkeztera egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/iz-erregistro-elektroniko-komuna>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak. Azken kasu horretan, laguntza eskaera bitarteko elektronikoen bidez izapidetu ahal izango du, baimendu gisa, egoitza elektronikoen zehazten denaren arabera (https://egoitza.araba.eus/es/egoitza_elektronikoa/baimenak).

— Kreditu erreserba: 20.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40104. G/419401/77000418 "Sitsaren Kontrol Biologikorako Laguntza Plana" partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da, hasieran erreserbatutakoaren gehieneko zenbateko berean, baita aurrekontu partidaren edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren zenbatekoan, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE